



KALE-BIDEEN ERABILERA PRIBATIBOA, KIOSKO BAT JARRIZ, ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Gorlizko Udaleko idazkari Juana Gorostiza Fernández de Villarán andreak egiaztatzen du iragarki hau www.gorliz.net web-orriaren "kontratzailearen profilean" eman dela argitara 2010/10/01ean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko irailaren 15ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da, esleipen-irizpide bakarrarekin, kale-bideen erabilera pribatibo jakin bat esleitzeko; hain zuzen ere, kiosko bat jarri nahi da eguneroko prentsa, aldizkariak eta argitalpenak saltzeko. Hori dela-eta, argitara ematen da iragarkia, hala ezartzen baita Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 126. artikuluan. Hona hemen kontratuaren datuak:

1. Erakunde esleitzaila

- a) Erakundea: Gorlizko Udala.
- b) Espedientea bideratzen duen administrazio-atala: Idazkaritza.

2. Kontratuaren xedea.

- a) Xedearen deskribapena: kale-bideak modu pribatiboan erabiltzeko administrazio-kontratazioa; hain zuzen ere, kiosko bat jarri nahi da eguneroko prentsa, aldizkariak eta argitalpenak saltzeko.
- b) Kontratua burutzeko lekua: Gorlizko Areatza kalea.
- c) Burutzeko epea: 15 urteko emakida.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua:

- a) Izapidetzea: ohikoa.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Modua: esleipen-irizpide bakarra, prezioa.

4. Lehiaketaren oinarritzko aurrekontua: 3.000,00 €

5. Bermeak.

- a) Behin-behinekoa: 1.350,00 €
- b) Behin betikoa: amaierako esleipen-prezioaren %5a.

6. Dokumentazioa eta informazioa lortzea:

- a) Entitatea: Gornzko Udaletxea, Herritarren Arretarako Zerbitzua.
- b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.
- e) Herria eta posta-kodea: 48630 GORLIZ
- f) Telefonoa: 94.677.01.93
- g) Telefaxa: 94.677.58.07

7. Eskaintzak aurkeztea.

- a) Aurkezteko azken eguna: Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko egunetik hamabosgarren (15) egun naturaleko 13:00 arte.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen orrietan ezarritakoa.
- c) Dokumentazioa aurkezteko lekua:
 - Entitatea: Gornzko Udaletxea, Herritarren Arretarako Zerbitzua.
 - Helbidea: Eliz Plaza, z/g.
 - Herria eta posta-kodea: 48630 Gornz.

8. Eskaintzak irekitzea.

- a) Entitatea: Gornzko Udala. Batzar-aretoa
- b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.
- c) Herria: Gornz.
- d) Eguna: ikusi administrazio-baldintzen orriak.

9. Iragarkien gastuak: ikusi administrazio-baldintzen orriak.